

AFRIKA'KO IPUIÑAK/ ALEGIAK MOXIA TA ZIRIA

Artu dauanagaitik esker ona agertzen ez dauana, ez da izango maitatua eta galduta ibilliko da. Ori da Mozanbike'ko alegi onek irakasten dauskuna.

Moxia eiztari zarrak ba eukazan ziri batzuk piztiak basobaltzean atrapateko. Goiz baten Narrapu eta Mante bere semeak ziriak ikustera joan ziran, eizea ona izan zan jakiteko. Arrituta geratu ziran iena aundi bat ziriak arrapatuta aurkitu ebenan.

Bildurtu be egin ziran eta etxera biurtzeko ustean egozanean, ieneak oi u egin eutsen:

-Ez izan nire bildurrik, zatoze eta poztu egingo zaree.


Gaztetxu biak urreratu ziran ieneagana eta bere narru baltza iguzi eben.


-Maitekorrak zaree- esan eban piztiak, eta ba-dakizue ni janari ona ez nazena. Orduan atera nagizue ziri onetatik.

-Ondo dago ori- erantzun eben anai biak-askatuko zaitugu baiña guri kalterik ez egitekotan.

-Nire berbea emoten dautzuet.

Baiña ieneak gorroto aundia eutson Narrapu ta Mante'ren aitari, alako ziria ipiñi ebalako eta bere aurka apentza artzeko seme biak iltea erabagi eban. Orregaitik bere burua askatuta ikusi ebanean, auxe esan eban:





-Ni nekatuta nago. Eroan nagizue mendi-muiño orren ostera nire janariak or daukadaz-eta.

Ume biak artu eben lepoan ienea eta bideratu ziran mendi-ostera joateko. Eurak be asko nekatu ziran, ienea astuna zalako, baiña isillik egiten eben bidea.

Mendi-ostera eldu ziranean, an ez eben ezer be aurkitu.

-Madarikatua!- esan eban ieneak. Ni zirian nengoan artean baten batek nire janariak ostu daustaz. Baiña an beian, itxasoaren ondoan beste batzuk daukadaz. Goazen ara.

Ume biak alkarrari begiratu eutsoen zer egin ezean. Itxasoa urrin egoan eta euren sorbaldak odole-tan egozan, ienea astuna zalako. Eta ienea auxa pentsatzen egoan:

-Ibilli eragingo dautset guztiz nekatu-arte eta orduan jan egingo dodaz.

Baiña ordu berean andik untxi bat igaro zan eta ikusten ebana ikusita, arritu egin zan. Laster sumatu ebazan ienearen asmoak.

-Zer jazoten da, iena adiskide? Itaundu eutson.

-Oso gaisorik nago eta mutil bi oneik neure etxera eroan bear nabe.

Mutil biak, izardia kenduta, untxiari esan eutsoen ur apur bat ete eukan edateko.



-Bai, emen daukat- erantzun eban untxiak. Ur oso ozkirria da, edan egizue nai dozuen beste.

Gero ieneari esan eutson:

-Zuk ez daustazu sinistu-azoko benetan gaisorik zagozala!

-Bai, bai, ni benetan gaisorik nago. Ziri batera jausi nintzan eta ziria ume onein gurasoak ipiña zan piztiak arrapatzeko.

-Nik ori siñistutea nai ba' dozu, erakutsi egistazu ziria dagoan lekuan.

Biurtu ziran barriro mendi-ostera eta aurkitu eben ziria.

-Emen dago- esan eban ieneak.

-Eta zelan jausi ziñan zirian?

Umeak gertatu eben lakeoa eta ienea barrura sartu eta baituta geratu zan.

-Eta zutzat ez da izan naikoa akatasuna lortzea. Ume oneik iltea nai izan dozu aitaren apentza artzeko! Oraintxe ordainduko dozu okerkeri ori- esan eban untxiak.

Andik laster, Narrapu ta Mante toki aretara joan ziran aitagaz eta ienea askatu baiño lenago katxabakada batzuk emon eutsoezan, egin eban okerkeria zigortzeko.